



ASKOTARIKO 40 JOSTAILUREN SEGURTASUNA ETA ETIKETAK

Bostetik batek ez ditu betetzen segurtasun arauak, eta gehienek gaizki eman dute etiketa, edo hobeto eman lezakete

40 JOSTAILU AZTERTU DIRA ETA 5 BAINO EZ DIRA IZAN SEGURTASUN PROBA GUZTIAK GAINDITZEAZ GAIN, ADINARI BURUZKO INFORMAZIOA EGOKI EMAN DUTENAK

Jostailuek neska-mutilen irudimena suspertzen dute, pentsatzen irakasten diete eta berebiziko garrantzia dute haien bilakaeran. Puzzleak, peluxeak, panpinak, mozo-roak... Eskaintza oso ugaria da, eta jostailuen segurtasun arauak aski zorrotzak. Arrazoiak begi bistakoa da: ezin da jakin haurrek egoki erabiliko dituzten edo ez eta ezuste-koak saihesteko, babes neurri handiak hartu beharra dago.

Berrogei jostailu aztertu ditugu laborategian, era askotakoak eta adin batentzat baino gehiagorentzat eginak (haur txiki-txikiatik hasi eta 14 urte artekoentzat). Zortzik ez dituzte bete segurtasun arauak, eta ezin dira jo segurutzat. Honako hauek izan dira: Pepo Píntame, Boxing King eta Nenuco Mocosete panpinak; Barbie-ren sormen jostailua, iman eta eranskailuduna; Mickey Mouse margo zorroa; Giro Marketing & Sales helikoptero telegidatua; Imaginarium etxeko Diskman mikrofonoduna; eta Widmann pailazo txanoa. Emaitzak ikusi ondoren, ekoiz-

SEGURU JOLASTEKO AHOLKUAK

- Jostailua zein adinetarako den jakin behar dugu, eta gomendio hori aintzat hartu. Jostailu batzuk seguruak izan daitezke adin batetik aurrerako haurrentzat, baina ez txikiagoentzat.
- Haurra beti begien bistan eduki behar dugu jolasean ari dela. Guri pentsaezina iruditu arren, jostailurik seguruena ere atera diezaiokete erabilera bitxiren bat haurrek.
- Egiaztatu behar dugu etiketan ageri dela ekoizlearen helbidea edo, bestela, EBko inportatzailearen helbidea; halaber, CE segurtasun marka ere eduki behar du, erabilera oharrak gaztelaniaz eman behar ditu, eta jostailua zein adinetako haurrentzat den adierazi behar du.
- Plastiko eta bilgarri guztiak kendu behar zaizkio, haurrari eman aurretik.
- Pilen kutxatxoan maiz begiratu behar dugu; haurrak zerbait sartu badu, zirkuitulaburra gerta daiteke.
- Jostailu apurtuak gorde egin behar dira haurren bistatik, batez ere zati txikietan apurtu direnak.
- Jostailua ez bada ahoan erabiltzekoa, ez da komeni haurrak hala erabil dezan.
- Jostailuek su hartzeko arriskurik gabeak izan behar dute, baina, badaezpada ere, haurrengandik urrun eduki behar dira kandelak, bengalak, pizgailuak, pospoloak eta su emateko erabiltzen diren gailu guztiak.
- Imanak irenstea oso-oso kaltegarria izan daiteke, eta, beraz, haurrari ez zaio utzi behar irensteko bezain iman txikiak dituen jostailurik.

leak eta Kontsumo agintariak jakinaren gainean jarri ditugu, egoki jotzen dituzten neurriak har ditzaten.

DISEINUA ETA OSAERA

Pepo Píntame txakur urdin bat da, eta poltsa hori bat darama. Bolaluma berezi bat ere badu, urez betea, eta poltsaren gainean marrazteko erabiltzen da (ehunari kolorea aldatzen zaio hezeten denean). Panpinari trakzio probak egin dizkiogu batean eta bestean, eta ongi gainditu ditu, baina poltsari egin dizkiogunean, hautsi egin da, eta zati txikiak geratu zaizkio solte (horiek irensteko edo arnasarekin barneratzeko arriskua dago). Jostailu hau 3 urtez azpiko haurrentzat egina da, eta adin horietan ohikoa izaten da neska-mutilak jostailuari tira egitea, eta, ondorioz, hautsi ahal izatea. Giro Marketing & Sales helikoptero telegidatuak ere ez du ongi erantzun: 48 newtoneko indarra egin diogunean, agerian geratu zaio helizearen ardatza, eta ertz arriskutsua izan daiteke hori. Arauak dio 60 newtoneko trakzioa jasateko gai izan behar dutela jostailuek.

Guk aztertu ditugun 40 jostailuetatik, bik imanak dituzte, baina Picadotty mahai-jolasak soilik betetzen du araua (aski iman handiak ditu, ez irensteko modukoak). Barbie-ren sormen jostailua da bestea, Clementoni etxekoa; oso iman txikiak ditu, eta haurrek irentsi egin ditzakete. Hori galarazita dago noski, eta, gainera, etiketan jakinarazi beharra dago zer kalte ekar ditzakeen objektu horiek irensteak, arauak hala esaten baitu. Sormen jostailu honek hori ere ez du betetzen.

FTALATOAK: TOXIKO GALARAZIAK, BAINA ORAINDIK ERABILTZEN DIRENAK

20 jostailutan, toxikoen bila jardun gara eta ftalatoak antzeman ditugu Mickey Mouse Club House-ren 56 margo-ko zorroan (Poessa etxekoa da) eta Boxing King panpina artikulatua (Color Baby etxekoa). Konposatu kimiko toxikoak dira ftalatoak, eta plastikoen malgutasuna handitzeko erabiltzen dira. Hormonetan jokabide anormalak eragin ditzakete, eta antzutasuna ere bai, eta, ondorioz, arauak oso muga zorrotza ezartzen du: % 0,1 izan ditzakete, gehienez (kopuru hori baino txikiagorik ezin da antzeman azterketetan). Mickey Mouse-ren margo zorroak % 7,9 ditu ftalatoak, eta Boxing King-en panpinak, % 3,4. Jostailu horiek, berez, ez dira ahoan erabiltzeko edo hozkatzeko eginak, baina ezin da ziurtatu haur txikiak halakorik egingo ez dutela.

Aztertu ditugun 12 jostailu elektrikoetan, zirkuitulaburrak eragin ditugu. Duo Mic Imaginarium izeneko diskman mikrofonodunari eta Famosa etxeko Nenuco Mocosete-ri pilak berotu zaizkie, arauak onartzen duen baino gehiago (45 °C berotzea onartzen du arauak). Segur aski, haurrek ez lukete zirkuitulaburrik sortuko jolasean ari direla, baina araua oso zorrotza da.

Jostailuek su hartzeko arriskurik baduten ere aztertu dugu, eta akatsak antzeman ditugu Widmann pailazo txanoan. Suga bat jarri diogu txanoaren artilezko bolatxoari, bost segundoz, eta lau segundo behar izan ditu itzaltzeko, behar baino gehiago (arauak dio bi segundotan itzali be-

Azterketaren emaitzak
Administrazioari
jakinarazi zitaizkion,
egoki jotzen dituen
neurriak har ditzan

har duela). Garrak, gainera, 70 mm baino gehiagoko bidea egin du itzali aurretik, eta hori ere gehiegi da. Txanoaren ehunean, segundoan 24 mm egiten ditu garrak, eta ez litzuke 10 mm baino gehiago egin behar.

ETIKETEN ARAZOKAK

Etiketek adinaren inguruan egin dituzten aipamenetan, hobetzeko moduko gauzak aurkitu ditugu lautatik hirtan: esaten dute zein adinetatik aurrera erabil daitekeen jostailua, baina ez zein adin bitartean. Zazpik ez dute adinari buruzko aipamenik, eta bi jostailuren adin aipamenak okertzat jo ditugu: Imaginarium etxeko kometa, hegazkin itxurakoa, 3 eta 8 urte arteko haurrentzat dela esaten du etiketak, baina adituek nabarmendu dute 6 urtetik gorako haurrak soilik izan daitezkeela gai horrekin jolasteko (txikiagoek begira egon besterik ezin dute egin). Barrio Sésamo etxeko peluxeak, berriz, haurra jaio eta berehala erabiltzekoa dela dio, baina haurrak, gutxienez, 9 edo 12 hilabete eduki behar litzuzke harekin jolasteko.

Etiketa guztien artean, Barbie-ren sormen jolas imandunak egin du arau-hausterik larriena. Segurtasun oharrak egitera behartzen du arauak, baina ez dauka bat bera ere. Beste akatsen artean, honako hauek nabarmendu behar ditugu: ekoizlearen edo inportatzailearen helbidea oker adierazia egon da A Salvo izeneko alfonbra-puzzlean (apargomazkoa da), Widmann-en txano ileordedunean, Graco etxeko haur kotxean, Mickey Mouse-ren margo zorroan eta Edurnezuriren txotxongiloetan. Barbie bizikletak aipamen batzuk falta ditu, haur bizikleten araudiak derrigorrezko jotzen dituenak (ekoizlea edo saltokiarena izan daiteke akatsa), eta Barrio Sésamo peluxeak ez du adierazten, jostailua haurrari eman aurretik, lotura-hari guztiak kendu behar zaizkiola. //

ARAU GUZTIAK BETETZEN



Conecta 4 mahai-jolasa
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 6 urtetik gorakoentzat.



Los Lunnis-en mozorroa
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: urte batetik 3 urtera bitartekoentzat.

DITUZTEN 5 JOSTAILUAK



Loro Molón loro soinuduna
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 5 urtetik gorakoentzat.



Scalextric, karrerak egiteko zirkuitua eta autoak
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 4 urtetik gorakoentzat.



Fisher Price sehaska zintzilikaria
Edad indicada: 0-5 meses.

ARAUAK BETETZEN DITUZTEN 21



¿Quién es Quién? mahai-jolasa
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 6 urtetik gorakoentzat.
Etiketa gaizki emana du: pieza txikiak dituela esaten du, baina irensteko arriskua dagoela esan gabe.



Action Man pampina, mendi bizikletaduna
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 4 urtetik gorakoentzat. Ez du adierazten gehienez zein adin arte erabil litekeen.

JOSTAILUAK, BAINA ADINARI BURUZKO AIPAMENAK HOBETU BEHAR DITUZTENAK



Baby Born pampina (haurtxoa)
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 3tik gorakoentzat, zein adin arte esan gabe.



Disney tunela, desmuntatzekoa
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 3 urtetik gorakoentzat. Ez du adierazten gehienez zein adin arte erabil litekeen.



Hot Wheels metalezko autoa
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 3 urtetik gorakoentzat. Ez du adierazten gehienez zein adin arte erabil litekeen.



Pocoyo bainuko pampina
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 18 hilabetetik gorakoentzat. Ez du adierazten gehienez zein adin arte erabil litekeen.



Chicco jolas manta, haurtxoentzat
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 0 hilabetetik gorakoentzat. Pedagogian adituen ustez gomendapena ez da erabat zuzena eta hobe liteke.



Geo-Trax jostailuzko tren
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 3 urtetik gorakoentzat. Pedagogian adituek zuzena dela diote, baina hobe litekeela.



Bonny el Piloto arraste jolasa, helikoptero itxurakoa
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 12 urtetik gorakoentzat. Ez du adierazten gehienez zein adin arte erabil litekeen.



Pokemon jolas elektronikoa
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 6 urtetik gorakoentzat. Ez du adierazten gehienez zein adin arte erabil litekeen.



Once Upon a Time Edurnezuriren txotxongiloak
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: ez du ezer esaten.



Fantasy Palace jostailuzko jauregia
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: ez du ezer esaten.



Playmobil futbol zelaia
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 5 urtetik gorakoentzat. Ez du adierazten gehienez zein adin arte erabil litekeen.



Spiderman maska argiduna eta eskularrua
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: ez du ezer esaten.



Aquadoodle marrazteko arbela
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 9 hilabetetik gorakoentzat. Pedagogian adituek zuzena dela diote, baina hobe litekeela.



Barbie Mariposa pampina
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 3 urtetik gorakoentzat. Pedagogian adituek zuzena dela diote, baina hobe litekeela.



Sassy txintxirrina, bentosaduna
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: ez du ezer esaten.




Pocoyo patinetea
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 6 urtetik gorakoentzat. Ez du adierazten gehienez zein adin arte erabil litekeen.



Play-Doh plastilina jolasa
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 3 urtetik gorakoentzat. Ez du adierazten gehienez zein adin arte erabil litekeen.



Buzz-Bee Toys, tiro trebetasuneko jostailua
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 6 urtetik gorakoentzat. Ez du adierazten gehienez zein adin arte erabil litekeen.



Picadotty mahai-jolasa, iruiduna
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 3 urtetik 6 urte bitartekoentzat. Hobetzeko modukoa da.

SEGURUAK DIREN 6 JOSTAILUAK, BAINA ETIKETA GAIZKI EMANA DUTENAK



A Salvo alfonbra-puzlea, goma-aparrezkoa
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 3 urtetik gorakoentzat. Ez du adierazten gehienez zein adin arte erabil litekeen.
Etiketa gaizki emana du: inportatzailearen izena ageri da, baina ez helbidea.



Barbie bizikleta
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: ez du ezer esaten.
Etiketa gaizki emana du: Erabileraren oharren liburuxkarik gabe etorri da, erantzukizuna ekoizlearena edo saltoa kiarena izan daiteke.



Graco haur kotxetxoa
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 3 urtetik gorakoentzat. Ez du adierazten gehienez zein adin arte erabil litekeen.
Etiketa gaizki emana du: ekoizlearen helbidea ageri da, baina ez zein den inportatzailea Espainian edo Europako Batasunean. Gainera, kotxetxoa muntatzeko oharrak ingelesez soilik daude.



Imaginarium kometa, hegazkin itxurakoa
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 3 urtetik 8 urte bitarteko haurrentzat. Ez da egokia. 3 urteko haurrak txikiak dira kometa honekin jolastu ahal izateko, eta begira egon besterik ezingo lukete egin.
Etiketa gaizki emana du: CE ikurrak neurri txikia du, arauak agindu baino txikiagoa.



Feber jostailuzko motorra
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 18 hilabete-tik gorakoentzat. Ez du adierazten gehienez zein adin arte erabil litekeen.
Etiketa gaizki emana du: Klaxonaren pilak aldatu daitezkeela esaten du, baina ez du erakusten hori nola egin behar den.



Barrio Sésamo peluxea
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: jaioberrietatik aurrekoentzat. Ez da egokia. Haurrak, gutxienez, 9 hilabete eduki behar ditu jostailu honekin jolasteko.
Etiketa gaizki emana du: ohar baten bidez jakinarazi behar luke lotura-hari guztiak bota egin behar direla jostailua haurrari eman aurretik.

SEGURTASUN ARAZOAK DITUZTEN 8 JOSTAILUAK



Barbie sormen jolasa, igeltsu moldeekin, imanekin eta eranskailuekin
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 7 urtetik gorakoentzat. Ez du adierazten gehienez zein adin arte erabil litekeen.
Ez du betetzen segurtasun araua: Imanak ditu, eta derrigor adierazi behar du zer-nolako kalteak etor daitezkeen -heriotza ere bai- imanek irentsita, baina ez du esaten. Plastikoa malguarekin egindako poltsak ditu, baina arauak agindu baino meheagoak (0,02 milimetro dituzte, eta, gutxienez, 0,038 behar lituzkete itotzeko arriskua saihesteko).
Etiketa gaizki emana du: jostailu kimikoen beharrezko dituen oharrak falta ditu. Arauak onartzen duen baino txikiagoa da letra zenbaitean.



Imaginarium dismak mikrofonoduna
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 5 urtetik 10 urte bitartekoentzat. Egokia da.
Ez du betetzen segurtasun araua: zirkuitulabur bat sortzen denean, 45 °C-tik gora berotzen da pila, arauak onartzen duen baino gehiago.
Etiketa gaizki emana du: jostailua garbitu aurretik transformadorea deskonektatu beharra dagoela jakinarazi behar du, arauak hala agintzen duelako, baina ez du egiten.



Boxing King borroka libreko panpina
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 3 urtetik gorakoentzat. Ez du adierazten gehienez zein adin arte erabil litekeen.
Ez du betetzen segurtasun araua: ftalatoak dauzka, substantzia toxikoak, eta haur jostailuek ezin dute eduki halakorik, hormonetan gorabeherak sor baititzakete.



Widmann pailazo txano ileordeduna
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: ez du ezer esaten.
Ez du betetzen segurtasun araua: txanoaren artilezko bolatxoari sugar bat jarri diogunean, bost segundoz, ez da behar bezain azkar itzali: lau segundo behar izan ditu, eta arauak dio bi segundotan itzali behar duela. Garrak 70 mm baino gehiagoko bidea egin du itzali aurretik, eta hori ere gehiegizkotzat jotzen du arauak. Txanoaren ehunean, berriz, segundoan 24 mm egiten ditu garrak, eta, arauak, ez lituzke 10 mm baino gehiago egin behar.
Etiketa gaizki emana du: Etiketaren CE ikurra ageri du, baina arauak agindu baino neurri txikiagoa du.



Helikoptero telegidatua
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 8 urtetik gorakoentzat. Ez du adierazten gehienez zein adin arte erabil litekeen.
Ez du betetzen segurtasun araua: helizeei 48 newtoneko indarra eginez gero, askatu egiten dira ardatzetik, eta ertz arriskutsuak uzten dituzte agerian. Arauak dio 60 newtoneko indarra jasateko gai izan behar dutela.



Mickey Mouse margo zorroa
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: ez du ezer esaten.
Ez du betetzen segurtasun araua: ftalatoak dauzka, substantzia toxikoak, eta haur jostailuek ezin dute eduki halakorik, hormonetan gorabeherak sor baititzakete.
Etiketa gaizki emana du: inportatzailearen helbidea kanpoaldeko plastikoa dator, eta inon ez du esaten plastikoa hori gordetzea komeni dela.



Pepo Pintame
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: 18 hilabete-tik gorakoentzat. Pedagogian adituek zuzena dela diote, baina hobe litekeela.
Ez du betetzen segurtasun araua: panpinaren poltsa horia zati txikietan puskatzen da tira eginez gero.



Nenuco Mocosete
Zein adinetako haurrentzat proposatzen du: ez du ezer esaten.
Ez du betetzen segurtasun araua: Ez du gainditu segurtasun elektrikoaren proba, pilak 45 °C-tik gora berotu baitira zirkuitulabur bat eragin dugu-nean.

Laburbilduz

40 jostailu aztertu ditugu, denegarikoak: elektrikoak, mahai-jolasak, mugitzen direnak, tradizionalak... Horieta zortzik segurtasun arazoak agertu dituzte, beste seik ez dituzte bete etiketa emateko arauak, 21 jostailuk hobeto adieraz lezakezte zein adinetan erabiltzeko diren, eta bostek soilik gainditu dituzte eskakizun guztiak.

Mickey Mouse House Club izeneko margo zorroak eta Boxing King panpina artikulatuak ftalatoak dituzte: hormonetan gorabeherak sor ditzaketeen osagai galaraziak.

Giro Marketing & Sales helikoptero telegidatuaren helizeak askatu egin dira eta ertz arriskutsu bat utzi dute agerian; Bizak etxeko Pepo Pintame panpinaren poltsa horia zati txikietan apurtu da trakzio proban, eta horiek irensteko edo arnasarekin barneratzeko arriskua egon liteke; eta Barbie-ren sormen jolasak, iman eta eranskailuekin datorrenak, plastikozko poltsa desegokiak ekarri ditu: behar baino txikiagoak eta meheagoak dira, eta haurra itotzeko arriskua egon liteke. Jostailu horrek, halaber, iman txikiak ditu, baina ez du ohartarazten zer-nolako kalteak sor daitezkeen horietakoren bat irentsita, nahiz eta arauak horretara behartzen duen.

Bi jostailuren pilek ez dute bete segurtasun elektrikoaren araua: zirkuitulabur bat eraginda, behar baino gehiago berotzen dira pilak. Famosa etxeko Nenuco Mocosete izeneko jostailuak eta Duo Mic de Imaginarium izeneko diskman mikrofonodunak (urdir kolorekoa da, botoi horiekin) eman dute arazo hori.

Widman pailazo txano ileordedunaren bolatxoak arauak agintzen duen baino bi segundo gehiago behar izan ditu itzaltzeko. Sugarrak behar baino bide gehiago egin du, bai bolatxoan eta bai ehunean, eta behar baino azkarrago zabaldu da.

Adinari buruzko aipamen gehienak egokiak dira baina hobetzeko modukoak, ez baitute adierazten gehienez zein adin arte erabil litezkeen.

5 jostailuk gainditu dituzte proba guztiak, eta adierazi dute behar bezain egoki zein adin tartetarako diren: Conecta 4, Los Lunnis-en mozorroa, Loro Molón, Fisher Price zintzilakaria eta Scalextric.